

IRAGARKIA, Industriaren Sustapen eta Eraldaketa-tarako Baltzuarena (SPRI SA), hornitzairen litzkeenentzako deialdi publikoari buruzkoa.	2159	ANUNCIO de la Sociedad para la Promoción y Reconversion Industrial, S.A. (SPRI, S.A), relativo a la solicitud pública de candidatos a proveedores.	2159
<b>SPRILUR SA</b>			
IRAGARKIA, Muskizko udalerriko (Bizkaia) Mina Petronila Industria Sektoreko hirigintza-lanak egiteko lehiaketa prozedura mugatuaz kontratatzeko dena.	2160	ANUNCIO para la contratación, por el procedimiento restringido, de concurso relativo a la ejecución de las obras de urbanización del Sector Industrial de Mina Petronila, en Muskiz (Bizkaia).	2160
IRAGARKIA, Muskizko udalerriko (Bizkaia) Santelicesko Industria Sektoreko sarbideak hobetzeko lanak egiteko lehiaketa prozedura mugatuaz kontratatzeko dena.	2161	ANUNCIO para la contratación, por el procedimiento restringido, de concurso relativo a la ejecución de las obras de mejora de accesos al «Sector Industrial de Santelices», sito en el término municipal de Muskiz (Bizkaia).	2161

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### 654

5/2007 DEKRETUA, urtarrilaren 16ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea arautzekoa.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna benetan lortzea administrazio guztiei eta haien jardun-eremu guztiei daragien zeharkako helburua da. Horregatik, arlo horretan erakundeen jarduna eraginkorra izango boda, ezinbestekoa da administrazioek neurriak koordinaturik abiaraz ditzatela, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, bai eta neurriok koherenteak eta elkarren osagarri izatea ere. Ildo horretan, administrazio bakoitzaren barruko koordinazioaz gain beste herri administrazioen arteko koordinazioa egon behar du nahitaez.

Xede horrekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea sortu zen, Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-eta toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeko ardura duen organoa izateko. Lege horretan, halaber, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzen zaio batzorde hori, eta erakunde horri ematen zaio batzordea bultzatu eta koordinatzeko ardura.

Legean ezarritakoa garatzeko, dekretu honen bidez batzordearen osaera, eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendu-araubidea arautzen dira. Beste alde batean, Batzordearen barruan Erakunde arteko Talde Teknikoa sortu da, laguntza eta aholku teknikoak emateko; horretarako, azterlan, txosten eta proposamenak

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### 654

DECRETO 5/2007, de 16 de enero, de regulación de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La consecución real de la igualdad de mujeres y hombres constituye un objetivo transversal que afecta a todas las administraciones públicas y a todos sus ámbitos de intervención. Por ello, para que la acción institucional en esta materia sea realmente efectiva es fundamental que las medidas que cada administración lleve a cabo en su ámbito de actuación sean coordinadas, coherentes y complementarias con el del resto de las administraciones. En este sentido, además de una coordinación interna dentro de cada administración, es necesaria también la existencia de una adecuada coordinación entre las diferentes administraciones públicas.

Con esta finalidad la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, crea la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres como órgano encargado de la coordinación de las políticas y programas que, en materia de igualdad de mujeres y hombres, desarrolle la Administración autonómica, la foral y la local. La Ley adscribe esta Comisión a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer a quien asigna la función de impulsar y coordinar los cometidos de aquélla.

En desarrollo de lo establecido en la Ley este Decreto regula su composición, funciones, organización y régimen de funcionamiento. Por otra parte, se procede a crear en su seno al Grupo Técnico Interinstitucional con la finalidad de prestarle apoyo y asesoramiento técnico, mediante la realización de estudios, informes y pro-

egingo dizkio Batzordeari. Gainera, aurreikusita dago Erakunde arteko Batzordeak lantalde teknikoak sortu ahal izango dituela gai batzuk berariaz edo arlo jakin baten ikuspuntutik aztertzeko.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 16ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

##### *1. artikulua.*— Helburua.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea arautzea da dekretu honen xedea. Batzordea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago eta Autonomía Erkidegoko Administrazioak eta foru-eta toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzeko ardura duen organoa izango da.

*2. artikulua.*— Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak honako eginkizunak izango ditu:

a) Euskal herri administrazioen arteko elkarriketarako organoa izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan; horrez gainera, sailen arteko sinergiak sortaraztea helburu duten esperientziak eta proposamenak elkarrekin konpartitzeko espazioa ere izango da, betiere berdintasunerako politiken kudeaketa eta emaitzak hobetzeko asmoarekin.

b) Emakume eta gizonen berdintasunaren arloan proposamenak egitea eta jarraibideak ezartzea, euskal herri administrazioen eskuartzeta eta jarduerak koordinatzeko, bai berariazko politikei dagokienez bai politika sektorialetan berdintasun-printzípia sartzeari dagokionez.

c) 4/2005 Legean ezarritakoa aplikatzerakoan euskal herri administrazioen artean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko irizpideak proposatzea.

d) Autonomía, foru eta toki administrazioek 4/2005 Legea eta bere 15. artikuluan araututako berdintasunerako planen erabilpen eraginkorra bultzatzea eta koordinatza bai eta kasu bakoitzean erabilpenaren ardura duten erakunde eta organoekin elkarlanean aritzea.

e) Administrazioei proposamenak egitea, 4/2005 Legean eta berdintasunerako plan edo egitarauetan ezarritakoa modu eraginkorrean bete eta garatzeko beharrak arauak eman eta bestelako egintzak buru ditzaten bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Administrazioak hiru mailetan eskuartzeko modua hobetu dezan ere.

puestas. Asimismo, se prevé que la Comisión Interinstitucional pueda crear Grupos técnicos de trabajo al objeto de tratar cuestiones de una manera más específica o con un carácter más sectorial.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 16 de enero de 2007,

#### DISPONGO:

##### *Artículo 1.*— Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres, adscrita a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, como órgano de coordinación de las políticas y programas que en materia de igualdad de mujeres y hombres desarrollen la Administración autonómica, foral y local, así como la constitución en su seno del Grupo Técnico Interinstitucional.

*Artículo 2.*— Funciones de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Corresponden a la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres las siguientes funciones:

a) Servir de órgano de interlocución entre las administraciones públicas vascas en materia de igualdad entre mujeres y hombres, así como de espacio de puesta en común de experiencias y de propuestas al objeto de generar sinergias entre los distintos niveles de la Administración de forma que se optimice la gestión y los resultados de las políticas de igualdad.

b) Elaborar propuestas y establecer directrices en materia de igualdad de mujeres y hombres para la coordinación de las intervenciones y actuaciones de las diferentes administraciones públicas vascas, tanto por lo respecta a las políticas específicas, como en cuanto a la introducción del principio de igualdad en las distintas políticas sectoriales.

c) Proponer criterios para dirimir posibles conflictos competenciales entre las diferentes administraciones públicas vascas que puedan surgir en aplicación de lo dispuesto en la Ley 4/2005.

d) Impulsar y coordinar la aplicación efectiva por parte de las administraciones autonómica, foral y local de la Ley 4/2005 y de los planes para la igualdad regulados en su artículo 15, así como colaborar con las entidades y órganos responsables en cada caso de su aplicación.

e) Proponer a las distintas Administraciones la adopción de normas u otro tipo de acciones precisas para el eficaz cumplimiento y desarrollo de lo dispuesto en la Ley 4/2005 y en los diferentes planes o programas para la igualdad, así como para la mejora en la intervención de los tres niveles de la Administración en materia de igualdad de mujeres y hombres.

f) Euskal herri-aginteen jarduerak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarraitu beharreko iloak eta jarraibideak jasoko dituzten plan orokorrak gertatzeko prozesuan eskuartzea, 4/2005 Legearen 15.1 artikuluaren arabera.

g) 4/2005 Legearen betearazpen, garapen eta erabilpenaren jarraipena egitea, Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurrekuskita koaren arabera. Batzordekideek dagozkien administrazioen menpeko organo eta erakundeek horretarako nahitaezkoak diren argibideak garaiz ematea zaindu beharko dute.

h) Erakunde arteko Talde Teknikoaren eta lantalde teknikoen jarduna zuzentzea eta gainbegiratzea, eta kide ez diren pertsonak Batzordearen eta lantaldeen bilkuretarako agertzeko baimena ematea.

i) Ematen zaizkion gainerako eginkizun guztiak.

*3. artikulua.*— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen osaera.

1.— Hauexek dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeko kideak:

a) Batzordeburua: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria. Batzordeburua kanpoan izanez gero, edo kargua bete gabe egonez gero, edo betetzen duena gaixotuz gero, idazkaria arituko da batzordeburu.

b) Batzordekideak:

– Eusko Jaurlaritzaren ordez lau pertsona, sailburuorde maila dutenak, honako alor hauen ardura dute: herri administrazioa, lana, gizarte gaiak eta ingurumena. Dagozkien sailburuek izendatuko dituzte pertsona horiek.

– Foru Aldundien ordez, alde batetik, pertsona bat, diputatu maila duena, aldundai horretarako agintea duen organoak izendatuko duena, eta, beste aldetik eta maila berberarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikuluak aipatzen duen eta foru aldundi bakoitzean berdintasun-politika bultzatzeko ardura duen organo edo unitateko burua.

– 6 pertsona, zinegotzi maila dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak ordezkatzen dituen elkartek izendatutakoak. Horietako hiru gutxienez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikuluak aipatzen duen eta dagokion toki administrazioan berdintasun-politika bultzatzeko ardura duen organo edo unitateko buruak izango dira.

c) Idazkaritza: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkaria izango da, hitz egiteko eta bo-

f) Participar en el proceso de elaboración de los planes generales que, de acuerdo con el artículo 15.1 de la Ley 4/2005, han de recoger las líneas de intervención y directrices que deben orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad de mujeres y hombres.

g) Hacer un seguimiento del cumplimiento, desarrollo y aplicación de la Ley 4/2005, en los términos previstos en su Disposición Adicional Primera. Las y los miembros de la Comisión han de velar para que los órganos y entidades dependientes de sus respectivas administraciones faciliten puntualmente la información necesaria a tal fin.

h) Dirigir y supervisar el trabajo del Grupo Técnico Interinstitucional y de los Grupos técnicos de trabajo, así como autorizar la presencia de personas no miembros en las sesiones tanto de la propia Comisión como de los mencionados Grupos.

i) Cualesquiera otras que le sean encomendadas.

*Artículo 3.*— Composición de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.— La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres está integrada por las y los siguientes miembros:

a) Presidencia: la Directora o el Director de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. En caso de ausencia, vacante o enfermedad será sustituida por quien ocupe la Secretaría, que asumirá sus funciones.

b) Vocales:

– En representación del Gobierno Vasco cuatro personas, con rango de viceconsejeras, o viceconsejeros, responsables respectivamente de las siguientes materias: administración pública, empleo, asuntos sociales y medio ambiente. Estas personas serán nombradas por su respectivos Consejeros y Consejeras.

– En representación de las Diputaciones Forales, por un lado, una persona, con rango de diputado, o diputada, designada por el órgano competente de cada diputación y, por otro lado y con el mismo rango, la persona responsable del órgano o unidad administrativa encargada del impulso de las políticas de igualdad de cada una de las Diputaciones Forales a que se refiere el artículo 10 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

– 6 personas, con rango de concejal, designadas por la asociación más representativa de los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de las que al menos 3 han de ser las responsables del órgano o unidad administrativa encargada del impulso de las políticas de igualdad de su respectiva administración local a que se refiere el artículo 10 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

c) Secretaría: el o la Secretaria General de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer que tiene voz y voto. En

toa emateko eskubidea izango du. Bera ez dagoenean edo gaixorik egonez gero, batzordekiderik gazteena ari-tuko da idazkaritz-laletan.

2.– Erakunde arteko Batzordeak, aztertu beharreko gaiak kontuan hartuta, adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomiko-en ordezkaritza-erakundetako ki-deak gonbida ditzake bere bileretara, haien iritziaren berri jakin nahi duenean.

**4. artikulua.–** Batzordeburuaren eginkizunak.

5. artikuluan aurreikusitakoez gain, Batzordeburuak honako eginkizunak izango ditu:

a) Organoaren ordezkari nagusia izatea.

b) Batzordearen bilkuretarra deitzea eta horietako gai-zerrenda finkatzea.

c) Batzordearen bilkuretan buru aritzea, eztabaidak zuzentzea eta, oro har, behar diren ahalmenak erabil-teza bilkurak ondo burutzeko.

d) Berdinketak bere kalitatezko botoaz ebatzea.

**5. artikulua.–** Batzordekideen eginkizunak.

Batzordekideen eginkizunak honakoak dira:

a) Bilkuretarra joatea eta eztabaidetan aritzea.

b) Bidezkoak jotzen dituzten proposamenak Batzordeari aurkeztea.

c) Dekretu honetako 8.2 artikuluan ezarritako eki-mena abiaraztea.

e) Botoa ematea, haren zentzua adierazita, eta boto partikularra ematea, gehiengoarekin bat datorrena zein ez datorrena.

f) Erakunde arteko Talde Teknikoa osatu duten per-tonak izendatzea eta lantalde teknikoak osatzeko pro-posamena egitea.

g) Kide ez diren pertsonak Erakunde arteko Batzordearen eta talde teknikoen bilkuretan ager daitezela proposatzea.

h) Kide anitzeko organo bateko kide diren aldetik dagozkien beste eginkizun guztiak.

**6. artikulua.–** Idazkaritzaren eginkizunak.

Hauexek dira idazkariaren zereginak:

a) Bilkurak prestatzea.

b) Batzordearen bilkuretako aktak egitea.

c) Batzordearen erabakien ziurtagiriak ematea.

e) Batzordeak izapidezten dituen expedienteak bul-tzatzea eta haien jarraipena egitea, eta Erakunde arteko Talde Teknikoak eta lantalde teknikoek esku artean dituzten expedienteen egoerari buruzko informazioa biltzea.

e) Batzordeak garatutako jarduerak jasotzen dituzten agiriak biltzea eta zaintzea.

los supuestos de ausencia o enfermedad, realizará estas funciones la o el vocal más joven.

2.– La Comisión Interinstitucional, en función de los temas a tratar, puede invitar a participar en sus reuniones a personas expertas y a miembros de organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos, cuando considere oportuno recabar su parecer.

**Artículo 4.–** Funciones de la Presidencia.

Además de las previstas en el artículo 5, el Presidente o la Presidenta de la Comisión tiene las siguientes funciones:

a) Asumir la superior representación del órgano.

b) Convocar las sesiones de la Comisión y fijar el orden del día.

c) Presidir las sesiones de la Comisión, dirigir las deliberaciones y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

d) Dirimir los empates con voto de calidad.

**Artículo 5.–** Funciones de las personas Vocales.

Las y los vocales de la Comisión tienen las siguientes funciones:

a) Asistir a las sesiones y participar en los debates.

b) Presentar a la Comisión las propuestas que estimen oportunas.

c) Ejercer la iniciativa prevista en el artículo 8.2 del presente Decreto.

e) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular concurrente o discrepante con el parecer de la mayoría.

f) Designar a las personas integrantes del Grupo Técnico Interinstitucional y proponer la constitución de Grupos técnicos de trabajo.

g) Proponer la presencia de personas no miembros en la Comisión Interinstitucional y en sus Grupos técnicos.

h) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de miembros de un órgano colegiado.

**Artículo 6.–** Funciones de la Secretaría.

Corresponde al Secretario o Secretaria:

a) Preparar las reuniones.

b) Levantar las actas de las sesiones de la Comisión.

c) Expedir certificaciones de los Acuerdos de la Comisión.

d) Impulsar y realizar el seguimiento de cuantos expedientes se tramiten en la Comisión, y recabar la información sobre el estado de los que se encuentren atribuidos al Grupo Técnico Interinstitucional y a los Grupos técnicos de trabajo.

e) Archivar y custodiar los documentos en que consten las actuaciones desarrolladas por la Comisión.

f) Batzordeburuak agintzen dizkion kudeaketa- eta koordinazio-egintza guztiak egitea, bai eta karguari da-gozzionak ere.

**7. artikulua.**— Emakume eta Gizonen Berdintasun-nerako Erakunde arteko Batzordearen jarduna.

1.— Erakunde arteko Batzordeak osoko bilkuretan jardungo du, eta azpibatzordeetan ere bai, gai zehatzak aztertzeko. Osoko bilkuran hautatuko dira azpibatzordeetan ariko direnak.

2.— Azpibatzordeek adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomiko-en ordezkaria-erakundeetako ki-deak dei ditzakete euren bilkuretarra, gai jakinak aztertzeko; pertsona horiek ahotsa izango dute, baina boto-rik ez.

3.— Batzordea, osoko bilkuran zein azpibatzordeetan ari dela, behar bezala eratutzat joko da boto-eskubidea duten kideen gehiengo osoa bertaratzen bada; batzordeburuak, edo, hori ez badago, beraren ordezkoa, na-hitaez egon behar da bilkuran, eta idazkaria ere bai.

4.— Batzordeak bilkuran diren boto-eskubidedun ki-deen gehiengo soillaren aldeko botoez hartuko ditu era-bakiak. Botoetan berdin-keta gertatuz gero, batzordeburuak ebatziko du bere kalitatezko botoaz.

5.— Bilkura guztien akta egingo da. Aktetan nor-tzuek hitz egin duten eta bilkura non eta noiz egin den zehaztu behar da; aztertu diren gai nagusiak, bozketa-moduak eta bozketen emaitzak, eta erabakiak ere azaldu behar dira.

6.— Aktak idazkariak sinatuko ditu, batzordeburuan oniritziarekin, eta bilkura berean edo hurrengoan onetsiko dira.

7.— Batzordekideek boto partikularrak jasoaraz ditzakete aktetan; boto horiek erabaki osoari buruzkoak zein zati bati buruzkoak izan daitezke.

**8. artikulua.**— Emakumeen eta Gizonen Berdintasun-nerako Erakunde arteko Batzordearen bilkuren arau-bidea.

1.— Batzordeak gutxienez ohiko osoko bilkura bat egin behar du urtean.

2.— Gainera, Batzordeak osoko bilkura bereziak egin ditzake, batzordeburuak edo kideen bi herenek eskatzen dutenean.

3.— Batzordeko kideen bi herenek osoko bilkura be-rezia egitea nahi badute, idatziz egin behar dute eskaera. Eskaeran, aztertu nahi diren gaiak agertu behar dira eta zergatik proposatzen diren azaldu behar da. Horrelakoetan, batzordeburuak eskaera jaso eta hamabost egun igaro baino lehen deituko du bilkura berezia. Gai-zerrendan, nahitaez agertu behar dira eskatutako aztergaiak, baina batzordeburuak aztergai gehiago ere sar di-tzakete.

f) Realizar cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la Presidencia, o le sean propios del cargo.

**Artículo 7.**— Funcionamiento de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.— La Comisión Interinstitucional puede funcionar en Pleno y en Subcomisiones para el estudio de temas específicos, correspondiendo al Pleno el nombramiento de las personas que forman parte de cada una de las Subcomisiones.

2.— Las Subcomisiones pueden, en función de la materia, también integrar dentro de ellas, con voz y sin voto, a personas expertas y a miembros de las organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos.

3.— La Comisión, tanto en su funcionamiento en Pleno como en Subcomisión, queda válidamente constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que debe encontrarse necesariamente la Presidenta o el Presidente, o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y la Secretaria o Secretario.

4.— La Comisión adopta sus acuerdos por mayoría simple de los miembros asistentes con derecho a voto. En caso de empate decide el voto de la Presidenta o Presidente.

5.— De cada sesión se levanta acta que contendrá la indicación de las personas que hayan intervenido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos.

6.— Las actas son firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la Presidencia, y se aprueban en la misma o en la siguiente sesión.

7.— Las personas miembros de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares, ya sea a la totalidad del acuerdo, ya sea a cuestiones puntuales del mismo.

**Artículo 8.**— Régimen de Sesiones de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1.— El Pleno de la Comisión ha de celebrar, al menos, una sesión ordinaria al año.

2.— Además, el Pleno puede celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes.

3.— La solicitud de convocatoria de sesiones extraordinarias a petición de dos tercios de las y los integrantes del Pleno se tiene que realizar por escrito y ha de contener la propuesta motivada de los asuntos a tratar. En este caso, la Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidenta o el Presidente adicionar otros.

**9. artikulua.**— Erakunde arteko Talde Teknikoa.

1.— Hamazortzi teknikarik osatuko dute Erakunde arteko Talde Teknikoa, batzordekideko bana eta batzordekideek berek izendatuta. Ahal dela, dagokion erakundean emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen eta horretaz aholkuak ematen lan egiten duten teknikarietako bat izango da. Aztertu beharreko gaiak konuan hartuta, Batzordeak baimena eman dezake adituak eta gizarte interesen eta interes ekonomiko enordezkatza-erakundeetako kideak izan daitezten Erakunde arteko Talde Teknikoaren bilkuretan.

2.— Erakunde arteko Talde Teknikoaren helburua Erakunde arteko Batzordeko kideei beharrezko lagunza eta aholkularitza teknikoa ematea da, euren egin-kizunak ondo bete ditzaten. Agintzen zaizkion gaiak aztertzea, horiei buruzko irizpenak ematea eta proposamenak egitea dira talde horren egitekoak. Taldeak, bestalde, ezin izango du, inolaz ere, Batzordeari berari dagokion ebaZenik eman.

3.— Erakunde arteko Talde Teknikoaren koordinazio-lana egingo duena lehendakariak berak izendatuko du.

**10. artikulua.**— Lantalde teknikoak.

1.— Erakunde arteko Batzordeak lantalde teknikoak sor ditzake gai batzuk berariaz edo arlo jakin baten ikuspuntutik aztertzeko. Taldeok iraunkorrik zein aldi baterakoak izan daitezke.

2.— Lantalde tekniko bat eratzea erabakitzent denean, erabakian bertan, talde horren kideak, xedeak eta jarduteko modua azaldu behar dira. Agintzen zaizkion gaiak aztertzea, horiei buruzko irizpenak ematea eta proposamenak egitea dira lantaldearen egitekoak eta ezin izango du, inolaz ere, Batzordeari berari dagokion ebaZenik eman.

**11. artikulua.**— Administrazio-kudeaketa eta aurrekontua.

1.— Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeari, Erakunde arteko Talde Teknikoari eta eratzen diren lantalde teknikoei jarduteko behar duten lagunza tekniko eta administratibo guztia ematea.

2.— Emakunderen aurrekontuetan zehaztuko dira xede horretarako beharrezkoak diren baliabideak.

**XEDAPEN GEHIGARRIA.**— Karguagatik berez Batzordeko kide ez diren batzordekideak eta Erakunde arteko Talde Teknikoko kideen izendapena.

Dekretu hau indarrean jartzen den egunaren bihamarunetik hasi eta hilabeteko epean izendatu behar dira karguagatik berez Batzordeko kide ez direnak, hain zuzen ere, dekretu honetako 3.b) artikuluan adierazitakoak, bai eta haien ordezkoak ere. Ordezkatzen du-

**Artículo 9.**— Grupo Técnico Interinstitucional.

1.— El Grupo Técnico Interinstitucional está integrado por dieciocho personas técnicas, una por cada persona miembro de la Comisión y designadas por éstas preferentemente entre el personal técnico encargado del impulso y asesoramiento en materia de igualdad de mujeres y hombres en su correspondiente institución. La Comisión puede autorizar, en función de los temas a tratar, que personas expertas y miembros de organizaciones representativas de los intereses sociales y económicos asistan a las reuniones del Grupo Técnico Interinstitucional.

2.— El Grupo Técnico Interinstitucional tiene como finalidad prestar el apoyo y asesoramiento técnico necesario a las y los miembros de la Comisión Interinstitucional para el correcto desempeño de sus funciones. Las funciones de este Grupo son las de estudio, informe y propuesta con relación a las cuestiones que se le atribuyan, no pudiendo adoptar acuerdos, que en todo caso corresponden a la Comisión.

3.— La Presidencia será quien designe a la persona que ejerza las funciones de coordinación del Grupo Técnico Interinstitucional.

**Artículo 10.**— Grupos técnicos de trabajo.

1.— La Comisión Interinstitucional puede acordar la constitución, de modo permanente o coyuntural, de Grupos técnicos de trabajo al objeto de tratar cuestiones de una manera más específica o con un carácter más sectorial.

2.— El Acuerdo por el que se constituya un Grupo técnico de trabajo determinará su composición, fines y modo de funcionamiento. Sus funciones serán las de estudio, informe y propuesta en relación con las cuestiones atribuidas, no pudiendo adoptar acuerdos, que en todo caso corresponden a la Comisión.

**Artículo 11.**— Gestión administrativa y presupuesto.

1.— Corresponde a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer prestar la asistencia técnica y administrativa necesaria para el funcionamiento de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como del Grupo Técnico Interinstitucional y de los Grupos técnicos de trabajo que se constituyan en su seno.

2.— Se han de consignar en los presupuestos del Instituto los recursos necesarios a tal fin.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL.**— Designación de personas Vocales no natos y de las personas integrantes del Grupo Técnico Interinstitucional.

En el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la entrada en vigor del presente Decreto, deberá procederse a la designación de las y los Vocales no natos a que se refiere el artículo 3.b) del presente Decreto así como a sus suplentes. Las y los suplentes han

ten pertsonaren maila bera izan beharko dute ordezkoek, edo, hori ezean, zuzendari mailakoak, edo balio kideko organoak foru eta toki erakundeetan. Batzordean sailak edo erakundeak ordezkatzen dituzten kideek izendatuko dituzte Erakunde arteko Talde Teknikoa osatuko duten pertsonak eta beren ordezkoak. Izendapen hori batzordekideek eureka jaso eta hamabost eguneko epean egin beharko da.

AZKEN XEDAPENA.– Dekretuaren indarraldia.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 16an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

### **655**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2006ko abenduaren 4koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bidez, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurrarde-bulegoen egitura organikoa eta funtzionala arautzen da».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuaren 24.2.a) artikuluan xedatzen denez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

Industria, Merkataritza eta Turismoko lurrarde-bulegoen egitura organikoa eta funtzionala arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko abenduaren 4ko Aginduan (2006ko abenduaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 244. zenbakia) horrelako akatsak antzeman direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

– 4. artikuluan, B idatz-zatiko 2.1 paragrafoan, 25365. orrialdean, honakoa dioenean:

de tener el mismo rango que la persona a la que sustituyen o en su defecto, director o directora, u órgano equivalente en las instituciones forales y locales. Las personas integrantes del Grupo Técnico Interinstitucional y sus suplentes, deberán ser designadas por las personas Vocales que representan a sus respectivos departamentos o instituciones en la Comisión en el plazo de quince días desde el nombramiento de éstas.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor del Decreto.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de enero de 2007.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## **DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

### **655**

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 4 de diciembre de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la estructura orgánica de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 4 de diciembre de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la estructura orgánica de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 244, de 26 de diciembre de 2006, se procede a su oportuna corrección:

– En el artículo 4, apartado B, párrafo 2.1, página 25365, donde dice: